

Auzoen Mahaia.

Eremuetako 1. bilera.

Arramele.

Tolosako udala.

1. Laburrean

1. Oinarrizko informazioa.

Data: apirilak 09

Ordutegia: 18:00etatik 20:00etara.

Tokia: Tolosako udala

Parte-hartzaileak:

- **Tolosako Udala:**

o Andu Martinez de Rituerto, alkatea

o Josune Sanz, Komunitatea eta Gobernantzako zinegotzia.

- **Laguntza-taldea:** Nommad kooperatibako Axel Moreno.

- **Inguruko auzoetako bizilagunak:** 4 bizilagun, 4 gizonezko.

2. Saioaren helburua:

- Inguruko bizilagunak elkartzeko gune bat sortzea eta prozesuaren fase hori abian jartzea.

- AuzoEkinen prozesua azaltzea eta Auzoen Mahaiari aplikatzea.

- Auzoen Mahaiak auzo bakoitzerako ezarritako neurrien aurrerapenak partekatzea eta eztabaidatzea.

- Auzoen eskaera berriei erantzun (partziala) ematea.

- Auzoen Mahaitik AuzoEkinerako trantsizioa egiteko hurrengo urratsak sartzea

2. Saioaren laburpena

1. Sarrera.

- Alkateak ongietorria, eskerrak eta sarrera instituzionala egin du. Ondoren jardunaldia prozesuan kokatzeko hitzartzea (nondik datorren, gaur egun non dagoen).

- Prozesuaren, jardunaldiaren eta dinamikaren aurkezpena, Nommad kooperatibako Axel Morenok eginga.

2. Elkar ezagutzen.

- Auzo elkarteko 3 kide

- Herritar 1 modu indibidualean.

3. AuzoEkin eta Auzoetako Mahaiaren aurkezpena.

Nommad enpresako aditu teknikoa den Axel Morenok honako gai hauen berri eman du:


- AuzoEkinen eta Auzoetako Mahaiaren aldi bereko prozesuaren aurkezpena.

- AuzoEkinerako trantsizioa egiteko urratsak.

4. Auzoetako Mahaiko neurrien aurrerapen maila.

Alkateak gaien baitan azken hilabeteetan hartutako neurrien aurrerapenak aurkeztu ditu eta bizilagunekin aztertu dira:

- **Multikiroleko zelaia.**
 - o Beraien informazio eskaerari emandako erantzuna partekatzen dugu.
 - o Emandako erantzunarekin ez direla gustura gelditu jasotzen da. Egindako eskakizunen artean hauek berrikusiko dira:
 - o Futbol zelaiaaren tamaina handitzea. Luzeraz metro pare bat luzatu eta zabaleran ere ahal dena.
 - o Iparraldeko porteriaren atzealdean sarea jarri.
 - o Zoru biguna jartzeko eskaera egin dute...
- **Bizikletentzako aparkalekuak jarriak dira.**
- **Parkeko elementuak berritu dira.**
- **Biribilgune bidegorriaren jarraipena.**
 - o Bertako terreno batzuen espropiazioaren zain, azken moldaketak egingo dira biribilgunean; tartean biribilgunea handitu eta bidegorriari jarraipena eman.
- **Errepideko zuloak:**
 - o Epe motzean konponketa puntualak egingo dituzte.
- **Plazako lurreko konponketak:**
 - o Batzuk burututa daude dagoeneko eta besteak bukatzen ari dira.
- **Komuna publikoa.**
 - o Aukera desberdinak aztertzen ari dira.
- **Auzo lokala.**
 - o Lehenengo lizitazioa hutsik geratu izanak lokala erostea atzeratu dela adierazten da. Baina asmo politiko teknikoak jarraituz, bigarren lizitazioaren lanketan jarraitzen du Udalak. Laster argitaratzeko asmoa dago.
 - o Oso kezkatuta daude gai honekin. Ez dela aterako diote...
- **Arkaute etxea.**
 - o Museoaren proiektua bideratzen ari dela adierazten du alkateak.
- **Txakurrekin arazo larria.** Udaltzaingoari abisua pasako zaio.
 - o Berdegunea ez da errespetatzen.
 - o Txakurrak solte eramaten dituzte.
 - o Arkupetan pixa egiten dute eta ez dute garbitzen.
 - o Gauez berandu eta goizetan oso goiz txakurrak kalean eta zaunka...
- **Trafikoa.**
 - o Jendea oso azkar sartzen da Carrefourretik eta orokorrean errotondara iritsi arte.
 - o Tunelean ere oraindik abiadura handiarekin dabilta autoak.
 - o Radarrak jartzeko aukera aipatu dute.
- **Kale garbiketa.**
 - o Garbiketa indartzeako mezua pasa zaio enpresari udaletik.
 - o Hala ere, bizilagunek diotenez zona batzuetatik badirudi ez dela garbitzailea pasatzen. Uzturre kalearen hasieran zerbeza botila batek bi aste eman ditu norbaitek hautsi duen arte...
- **Aparkalekuen inguruko kezkak.** Bizilagunek gaizki aparkatutako autoen arazoa mahaigaineratzen dute:
 - o Ondorengo irudian azaltzen den gunean askotan bi kotxe egoten dira aparkatuta. "Edo isuna jartzen diegu edo urdinez margotzen dugu aparkatu ahal izateko..." dio.



- Hemen ere kotxeak aparkatuta egoten dira:



- Horrelako tokietan ere aparkatzen dute:



- Farmazia eta kotxe tailerraren parean oso maiz kotxeak bide gorrian geldituta egoten dira:



- Larramendiko erdiko kaleetako bihurguneetan aparkatzen duten kotxeak (espaloï gainean edo izkinetan).



○

5. Itxiera.

- Hurrengo urratsei buruzko azalpena, Josune Sanz, Komunitatea eta Gobernantzako zinegotziak emana:
 - Eskerak jasoko dira eta dagokion zerbitzuetara bideratuko dira.
 - Hurrengo bilera, bestelako beharrik sortu ezean, urtearen amaieran egingo da, gai desberdinen aurrerapenaren jarraipena egiteko eta 2026ko aurrekontu-urteari begira egin daitezkeen jarduketak proiektatzeko.
- Partehartzaileei esker ona adierazi zaie eta bilkurari amaiera eman zaio.